


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Uztailak 5, 113. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



XABIER ERDOZIA,
Lan mundua euskaldundu nahian



F "Bihotzeko garbarak"
otonobela


Otoitza eta lana

Kontzeziñoako klausurako monjak

Jabier

ARRASATE
KIROLAK


Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12





Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

**ARRASATE
PRESS
ASTEKARIA**

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Lejuntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Edurne Mujika

Publizitatea eta harpidetza:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elempuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Zeinek zeini hankatrabak ipini?

“

• • • Zenbaitzuek lan horren kostoaz galdegingo dute. Baina ezin dezakegu aurreztu eleaniztasunean, informazio eta jakintzaren elkar trukatzeko askea garantizatu nahi baldin bada; hau da, ideien zirkulazioa koipeztu behar dugu. Hortixek datozki-gu gaitasuna, bidegarritasuna eta gure funtzionamendua bera. Eleaniztasuna ez da, noski, luxu edo zama arbuia garri eta astuna. Hizkuntzen aniztasunari egokitu zaizkion diru iturriak askatasuna, demokrazia eta giza duintasunaren prezioa dira.

... Hiritarren Elkarte oinarri ezinbestekoa, kultur eta hizkuntz ugaritasuna dugu. Gure Elkarreak duen betebeharrak linguistikoa askoz errazago gaitu ahal izango dugu, hiritarrok zenbait hizkuntzatan mintzatzeko eta ulertzeko gai baldin bagara. Ama-hizkuntza edozein une eta zirkuntziaz erabiltzeko eskubidea eta beste edozer mintzaira ikasteko gizabanakoaren funtsezko eskubideen artean aurkitzen dira.

... Hizkuntzak ikastea eta erabiltzea, gure erakundeetako beharrezko eta errealitatea dira. Enpresa, elkarte, merkatal eta industri ganbarek ere helburu berdina dute. Langile eta zuzendariak aukeratzeko orduan horien hizkuntz ezagupideak baloratzen ditugu”.

Horrelako baieztapen asko irakur ditzakegu, “ Hizkuntzen erronka,

mugarik gabeko Europar” izeneko artikuluan. Egilea, Eduard Brackeniers da, Europako Ekonomi Elkartean itzulpen gintzarako zuzendari orokorra, alegia. Txarrena da, gizon hori bere diskurtsoan estatu-hizkuntzei buruz ari dela, besteak -aipatzen dituen arren- bigarren mailakotzat hartzen dituelarik.


Dena den, aurreneko hiru lerroaldietan badira zenbait kontzeptu euskaldunok guretzat espreski egokituta izan balira bezala uler genitzakeenak. Gure herriaren bidegarritasuna aldarrikatzen dugunean, euskaraz bizi ahal izateko eskubidea erreibindikatzeko ari gara. Beste konplikaziorik gabe. Eta hori Europako edozein gizabanakok egin badezake, nekez uler dezakegu zergatik ipintzen zaizkigun, behin eta berriz pairatu behar ditugun eragozpenak. Europar hiritar bezala ari naiz eta nik ez ditut, ama-hizkuntzari dagokionez, edozein frantziar, alemaniar edo espainiarrek dituen eskubide eta ahalbideak. Beraz, diskriminatzen ari zait.

Europako Ekonomi Elkartean lanabes bilakatu baldin badira hizkuntzak, euskara urrutiko dago kategoriatik horretatik. Baina, arren, ez dezagun pentsa erru guztia Bruselaren erosoki eserita egon daitezkeen Brackeniersen gisako zaldunena denik. Kalamitatearen sustraiak hurbilago senti ditzakegu.

Josemari Velez de Mendizabal

Lore Iurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO

okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA PAPERAK
PINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa
Otalora 1ean

MUSAKOLA

OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

EARI erantzuna

Ez nuke nahi nik gutun honen bidez eztabaida antzuak berritzerik, baina Arrasate Pressen 111. zenbakian Arrasateko EAko idazkariak niri zuzendutako karta bati erantzun nahi nioke, egia da.

Nik *Telebegi* hartan barkamenak eskatu nituela, baina esandakoarekin minduta sentitu den edonori barkamenak eskatzeak ez du inolako kulpabilitaterik erakusten. Intentzioa inor mintzerik ez zelako eskatu nituen nik barkamenak eta ez erreportaian esandakoagatik.


Eritziak kontrastatzeko eskubidea aipatzen duzu eta bat nator ni horretan zurekin, dena den, zerbait argitu nahi nizuke. Erreportaian, bi atal berezitu nahi nituen. Bata, hauteskundeetako emaitzak azaltzea eta bestea, emaitza hauetatik zenbait ondorio ateratzen ahalegintzea.

Dudarik ez, ondorio horiek subjeti-
boak ziren erabat, alderdien bilakae-
ra ikusi ondoren egindakoak. Beste
norbaitek, zuk kasu honetan, beste
irakurketa bat egin dezake alderdiek
hauteskunde ezberdinetan izandako
emaitzez. Nik irakurketa konkretu
hura egin nuen. Dena den, errepor-
taiaren ostean, mahaingurua egiten
da dakizun bezala, gaiaren inguruan
eta zuen alderdiko ordezkaria ere
bertan zegoen. Informazioa kontras-
ta zitekeen

Beraz, nirea, beste ikuspegi bat
besterik ez zen.


Bukatzeko, niri zuzendutako
gutunean, PNV salatzen duzu
nalabait eta noizbait EA eta PNV-k
bat egingo dutela uste izatearren,
EA-ko alderdikideak gutxi ezagu-
tzen ditudala diostazu. Guzti honen
aurrean, ez dut ulertzen duela urte
gutxi nola zeundeten alderdi berean.

Andoni Urzelai




**Ongi
etorri!**

Arrasate Pressekin osatu du berriro bere plantila. **Edurne Mujika**, 24, arrasatearra, izango da kazetari berria. Edurnek Irakasle Eskolan ikasi zuen eta Itzultzaileen Eskolan dihardu ikasten. Urtebetez udaletxean egin du lan, itzultzaile lanetan. Musikazale handia, dagoeneko aberastu du erre-dakzioko musika-eskaintza. Ongi etorri, Edurne!



Edurne Mujika

Nola pasatu dituzu San Juanak?



Aritz Arrieta
(Ikaslea)

Oso ondo, ikaragarri dibertitu naiz. Gehien zezenak gustatu zaizkit.




Nuria Segovia
(Umezaina)

Ondo, zezenak onena.



M. Antonia Carmona
(Etxekoandrea)

Oso ondo pasatu ditut, ia dena gustatu zait, baina gehiena dantzaldiak.




Jose Luis Zarraoa
(Jubilatua)

Gurea joanda dago, ez dugu adinik mutil gazteen moduan ibiltzeko. Kalerik kale txikiteoan ibili gara. San Juanetan ez dut gauza handirik ikusi, baina gustokoen emakumeak jokaturako pilota partidua.

LENIZ


AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Memesa

79 42 22

X. Gorosarri eta M. L. Trojaola doktoreak

Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantseza (Lyon-eko Unibertsitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO GAIXOTASUNAK

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
Iguatorioa 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 79 39 00
(emakumeak) 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

DYA

Antzuola 76 62 91

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
(Txanda hartzeko) 77 03 46
77 07 21
Ofiati 78 08 52
Eskoriatza 79 98 58
Aretxabaleta 79 74 58
Aramaio (945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

UDALTAINGOA

Ofiati 78 04 11
Bergara 76 14 69
Arrasate 79 14 39
Aretxabaleta 79 10 52
Eskoriatza 79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate 79 71 99

SUHILTAILEAK

Udal taldea 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
Gasa 900 40 05 23
..... 79 78 44
..... 79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak 79 12 22
P.E.S.A. 79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO

ZENTRUAK
Iturbide Egoitza 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO

INFORMAZIOA
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77



5

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Monterronen, gaueko 10.30etan.
- Zeramika eta pintura erakusketa Monterronen.
- Goardiako farmazia: -egunez: Español, Iturriotz. -gauetz: Guallar, Bergara.

6

LARUNBATA

• • •

- Etxebizitzen problematikaz egun kulturala Monterronen, bertan, erakusketa, antzerkia eta jaialdia izango dira.
- Goardiako farmazia: -egunez: Corcuera, Musakola. -gauetz: Estella, Bergara.

7

IGANDEA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Irizar, Erguin. -gauetz: Estella, Bergara.

8

ASTELEHENA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Amezua, Santamaina. -gauetz: Mozos, Bergara.

9

ASTEARTEA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Aurora Ruiz, Maala. -gauetz: Camacho, Bergara.

10

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Morales, San Andres. -gauetz: Puy, Bergara.

11

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Azkoaga, Ferrerías. -gauetz: Guallar, Bergara.

**Kirol
Agenda**

TXIRRINDULARITZA

• • •

Hilaren 14ean Arrasate eta Gatzagaren arteko proba erlojuaren aurka. Txirrindulari profesionalentzat, goizeko 11.30etatik aurrera.

MENDIA

• • •

Uztailaren 14ean, Besaidek antolatuta Leintz Bailarako laugarren itzulia.



Liburuak

• Liburu berriak, Monterrongo liburutegian.

Savater, Fernando. "Etica para Amador".

Belli, Gioconda. "La mujer habitada".

Ford, Richard. "Incendios".

Scanlon, Ann. "The Pogues".

Chesterton G. K. "El hombre que fué jueves".

Roig i Ribas, Anselm. "Escapar a la mili".

Vila-Matas, Enrique. "Suicidios ejemplares".

Larrainzar, Patxi. "Pega, pero escucha".

Juaristi, Felipe. "Arinagoduk haizea, Absalon".

Bioy Casares, Adolfo. "La invención y la trama".

Tomasi di Lampedusa, Giuseppe. "El gatopardo".

Lekuona, Juan Mari. "Mimodramak eta ikonoak".

Togawa, Masako. "La llave maestra".

"Guía laboral 1991".

Feliu, Juan Mari. "Navarra paso a paso".

Van der Plas, Robert. "Ciclismo de montaña".

Micou, Paul. "El artista encubierto".

Stangerup, Henrik. "El hombre que quería ser culpable".

Perales, Vicente. "Guía de escalada en Araba".

Handue, Peter. "El miedo del portero al penalty".

Kureishi, Hanif. "El buda de los suburbios".

Fraguas de Pablo, Rafael. "Todo sobre el mundo árabe".

Bastienier, Migue Angel. "Palestina, el conflicto".

Chatwin, Bruce. "¿Qué hago yo aquí?".

Len, Siegfried. "La pérdida".

• Arrasate 90.

Liburu honetan, AEDk 90ean antolatutako lehiaketen irabazleen lanen bilduma argi-



ERAKUSKETAK

Zeramika eta pintura Monterronen

Datorren uztailaren 15era arte, Monterroneko erakustokietan bi erakusketa ikusteko aukera dago. Alde batetik, Monterroneko ganbaran, Leintz Zeramika eskolako ikastaroetan egindako lanen erakusketa prestatu dute. Bestalde, sarrera ondoko erakustokian, pintura eta marrazkia ikastaroetan egindako lanen erakusketa ere ikus daiteke.

Zeramikako ikastaroetan, 25 lagunek hartu dute parte, bi taldetan banaturik. Lehen taldeari, oinarriko ikastaroa eman zaio, kajak, plakak eta txurruen teknikaz; bigarren taldeari berriz, tornuaren teknika irakatsi zaio, kolorezko probekin batera. Ikastaroek guztira hiru hilabete 1^{er}erdiko iraupena izan dute. Pintura erakusketari dagokionez, esan behar 60 lan ikusteko aukera dagoela, sei hilabeteko lanaren ondorioa hain zuzen. Berrogeitamaren bat lagunek hartu dute parte pintura ikastaroan, oinarriko tekniketarik oleraino helduz.

taratzen da. Urtez urte AED kalitatez nahiz kantitatez, liburu hau hobetzen saiatzen dela dio hitzaurreak. Aurtengoan behintzat, argitalpen txukuna lortu dela lasai esan daiteke, argazkiak koloretan atera beharrean zuri-beltzean atera badira ere.

Urtero legez, ipuinak, bertsoak, poesia, argazkian eta ko-

mikiak biltzen dira liburu honetan. Gaztetxoek egindako lanei, indar handiago eman izan zaie, urtetik urtera maila handiena erakusten dutenak dira eta. Beraz, arrasatearrek egindako literaturaz gozatu nahi dutenek, badakite non begiratu.

Aldizkariak

• Almenkaria

Almeneko zortzigarren mailako ikasleek, irakasleen laguntzarekin egindako aldizkari txukuna. Hizkuntza eta gaiak lantzeko tresna izateko jaiotzen ere, Almenkaria era profe-

sionalean eginda dago: hau da, finantziatzeko publikitateaz baliatu eta benetako inprimategira eramana da. Guztira mila ale atera dituzte, Almeneko ikasle eta irakasleen artean banatzen.

• Globo Rojo

Santa Agedako gaixoei ateratzen duten aldizkari honen hamaseigarren zenbakia, kallean da dagoeneko. Txistek, denborapasak, artikulu serioak,



kirolak, marrazkiek... osatzen dute Globo Rojo aldizkariaren eskaintza. Ehun eta berrogeitamaren pezetagatik herriko hainbat tabernetan eros daiteke.

Rock-a

• DdDP, "Escuchando un rock'n roll".

Zigarrolako rock talde honen maketa berria. Lady Alicia Records etxean grabatu dituzte maketa osatzen duten hamar kantuek. Azken aldiaren taldearen ekitaldiak asko areagotu dira. Maketa herriko tabernetan eskura daiteke, 500 pezetatan.



“ Zailena orkestra batean sartzeta da. Asko eskatzen da sartzeko, eta nik oposaketak egin nituenean ere bai. Gainera, lehen emakumeek ez zuten orkestretan jotzen, beti pentsatu izan delako emakumea horretarako ahulegia dela. Lan gogorra da, orkestran ezezik etxean ere jo beharra dagoelako.

(...) Bi aldiz izan naiz Errege-Etxean, Alfons XIII.aren egunean eta gorputz diplomatikoaren harreran. Eta hura izan zen Jauregiko azken kontzertua, berehala Errepublikak aldarrikatu bait zen.

(...) Erregeak, gizon sinpatiko askoa bera, honako hau esan zidan: “oso ondo jotzen duzu, ostera ere etorriko zara”. Gizajoak ez zekien hura izango zela halako jai baten aurrean zegoen azken aldia. Errege, printze, erregearen seme-alaba eta han zegoen jende guztiaren aurrean jotzea benetan zirraragarria izan zen niretzat”.

(Albina Madinabeitiak, *El Correo Español* egunkarian)

“ Alkatetza lortuz gero, bere lehenengo eginkizuna elebitasuna ezartzea izango dela esan du. “Ez da bidezkoa -dio- Udaletxeko paper guztiak euskara hutsean idatzita egotea. Horrek, ur-ordainagiriak ere ulertzeko gauza ez den biztanlegoaren zati haundia baztertzea esan nahi du”. Orain zinetotzi sozialista denak dienez, euskararena egoera baten islada besterik ez da, nazionalista ez dena bigarren mailako hiritartzat hartzen duen egoerarena, alegia”.

(Borja Olaizola kazetariak, *DV* egunkarian)



Zein izan da T.U-Lankideren ibilbidea? Eta etorkizuna?

On Jose Maria Arizmendiarietak antolatuta kooperatibista-talde gazte bat elkartu zen 1960. urteko irailean aldizkari bat sortzeko gogoz. Hilabete hartan bertan “Cooperación” izenpean kaleratu zen 1960. urtean lehengo aldiz gaur egun *T.U. Lankide* den aldizkaria. Ordutik gaurdaino, behin ere hutsik egin gabe, hilero irakur ahal izan dute Arrasate Kooperatiba taldeko kooperatibistek beren hilabetekaria.

Lehenbiziko alea makinaz idatzitako 6 folioak osatzen bazituen ere, azkenengoak berriz fotokonposizioan landutako 56 dauzka. Aldizkariaren tirada ere, denborarekin batera gehituz joan da; 1960an 515 aletakoa baldin bazen ere, egun 7.500koa da.

Hasierako eta gaur egungo *T.U. Lankide*ko helburua bera dela esan daiteke, gure kooperatibetan gertatzen denaren berri ematea eta kooperatibismoaren filosofia gure kooperatibisten artean zabaltzea, alegia.

Aurrerantzean *T.U. Lankide*ko Arrasate Kooperatiba Taldeko kooperatibistek nahi duten aldizkaria izan nahi du, elkarriketarako beti prest egongo den tresna zabal eta irekia, eta bazkide guztion sujerentzien zain egongo den aldizkaria. Hauxe izango da beraz, gure desfiorik garrantzitsuena, bazkide guztioi zuzendutako aldizkaria egitea eta bazkide guztion kolaborazioa lortzea, *T.U. Lankide* kooperatibista guztion aldizkaria izan dadin.

Jabier Markos,
*T.U. Lankide*ko zuzendaria

FAGOR 

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

 **PEÑACOB**
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01
ARRASATE





Euskaraz jolastu eta lagun berriak egiteko primerako esperientzia.

Hasi dira Udalekuak

492 umek parte hartuko uztailean

Uztailarekin batera hasi dira AEDk urtero antolatzen dituen Udaleku irekiak. Bi txandatan banatuta, 492 ume mondragoetar matrikulatu dira. Uztailaren 12ra arte luzatuko den lehen txandan 345 ume dabilta, 32 taldetan banatuta. 12tik 26rako txandan, berriz, 147 ume daude eta 13 taldetan banatuko dituzte.

Udaleku hauetan eskola eta ikastola guztietako umeek hartzen dute parte, 1. eta 8. maila arteko umeek. Txikiak gehiengoan egiten dute, 12 talde denetara. Gehienak D mailakoak. Matrikularen

kostoa 2.000 PTAkoa izan da. Berrogei monitorea umeen ardura hartuko dute.

Udaleku hauen aurrekontua 2.400.000 PTAra iristen da. Udalak 1.200.000 ordainduko ditu, matrikulekin 1.000.000 PTA lortuko dira eta Diputaziotik 400.000 helduko dira. Hiru eskolotako gelak erabiliko dira: Ferrixalekua, S. Viator eta Gazteluondo.

Udaleku ireki hauek herrian gelditzen diren umeek euskaraz jolas egin, natura ezagutu eta lagun berriak egiteko eratzen ditu AEDk. Aurtengoa laugarren edizioa da.

Errenta aitorpena

Joan den urtetik hona errenta-aitorpen mekanizatuak Arrasaten bertan egin duten arrasatearren kopuruak gorakada egin du, kontuan izanik, iaz Lan Kide Aurrezkian egindako errenta-aitorpenen kopura 1.590ekoa izan zela eta aurtengoa, berriz, 2.573koa.

Auzolandegiak

Aurtengoa, duela bi urte bezala, auzolandegiak izango ditugu Arrasaten. Aurrekoan Parrokian ari izan baziren ere, aurtengoa Udako Ingurugiro Eskolara datoz. Guztira, 20tik 24 urtera bitarteko 40 lagun inguru izango dira, 20ko bi txandatan banaturik; lehenengoan, uztailaren 1etik 15era eta, bigarrena, 16tik 30era. Bertan Estatu osoko jendeak hartuko du parte, eta dagoeneko bakoitzak 6.000 PTA ordaindu du. Udalan egingo duten lana ingurugiroarekin lotutakoa izango da, zirkuituak prestatu, eta aztertuta, maketak egin, ikus-entzunezko montaiak prestatu. Egunean lau ordutan egingo dute lan, Besaideko bi partaideren laguntzaz, eta beraiekin batera hiru monitorea etorriko dira, egunean zehar geratzen zaizkien ordu libre antolatuz.

Egun kulturala Monterronen

Bihar, uztailak 6, Monterronen etxebizitzaren problematikari buruzko egun kulturala antolatuko da. Bertan erakusketa, antzerkia eta jaialdia izango dira.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren 20,
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

□ **PSOEn asmoak**

Iturri onetik jakin izan dugunez, inoiz Arrasateko alkatetza lortuz gero, PSOEek Blanca Roncal liberatuko luke, udaleko gestioa eramateko. Hiru izango lirateke beraz, sozialisten ezpata nagusiak udaletxean: Blanca Roncal gestorea, Paco Garcia partiduko ortodoxia politikoaren zaindaria eta Nekane Iglesias aurpegi berria, beti ere beste bien babesean. Azken honek ikasi eta eskarmentua hartzeko erabiliko luke legealdi hau.

□ **Sebero Altube beka**

Iaz Udalak Arrasateko euskararen azterketa egiteko beka eman zion Jerardo Elorzari. Dagoeneko lana aurkezteko epea aurrera doala eta, Jerardok uztailaren amaierarako amaitua izango duela aitortu digu. Hasera batean Arrasateko euskararen inguruko ahalik eta bibliografia gehien biltzerari ekin zion, Barandiaranek eta Azkuek jasotakoa baitipat (ipuinak, kanta zaharrak, hiztegia, etab.). Testu horiek aztertzeaz gainera, Udala auzoko Luzia Otaduirekin ere aritu izan da, batez ere ahozko euskara aztertzen. Orain azterketa-lana amaitua du dagoeneko, eta sailkatu eta antolatzeari besterik ez zaio falta. Ea bada, laster batean lan hori kalean ikusteko aukera izaten dugun.

JAIOTZAK

Olabarria Iztueta, *Imanol*. Ekainaren 8an.
Deborja Lopez de Morais, *Francisco*. 15ean.
Gorosabel Arrese, *Josu*. 17an.
Carballideo Rebollo, *David*. 17an.
Gomez Diaz, *Borja*. 19an.

EZKONTZAK

Jose Ramon Nuñez & Miren Maite Alonso, ekainaren 8an. Elizaz.
Joaquin Castaño & Maria Isabel Gutierrez, ekainaren 8an. Elizaz.
Jesus Mari Sarazibar & Marli Dacikao, 13an. Zibilez.
Juan Jose Domenech & Miren Edurne Iñarra, 15ean. Elizaz.

Txandaka

... ETA BOLEIBOLA

Mende honetako 70eko hamarkada arte, eta ziurrenera arrazoi politikoren inguruetatik, "kirola" futbola zen; berau zelarik behin eta berriro telebista, irratia, egunkari eta abarretan etengabe agertzen zen kirol bakarra.

Egitura politiko berrien etorrerarekin, beste kirolak ere gero eta saio gehiago biltzen zuten komunikabide desberdinetan, eta ondorioz ezagunago eginez joan ziren, besteak beste: saskibaloia, eskubaloia, tenisa, motoziklismoa...


Hala ere, ez dute kirol guztiek zorte bera izan, eta oraindik ere herritarren artean minoritario izaten darraite.

Hauetako bat, beste edozein kirolaren antzeko moduan adinako ikusgarritasuna eskein dezakeelarik boleibola da eta iruzkin labur bat egin nahi nuke honen inguruan.

XIX. mendeko kiroltzat joa izan bada ere, eta saskibaloiarekin batera fitza federatiboaren kopurua handienetik izanik ere (SES Betan adibidez sei milioi) gure herrian ezezagun izaten jarraitzen du, aski ezezagun gainera.

Artikulu honen helburua ez da, ordea, kirol honek ikusleari eskaintzen dion goxotasun plastikoa goraiatzea, baizik eta boleian ari nahi duen edozein gaztek garatu behar dituen nolakotasun eta trebetasunak komentatzea.

Aipaturiko "nolakotasun fisiko" horiek, gizaki baten egoera fisikoak baldintzatzen duten faktoreak izango lirateke.



J. M. Basterrika (*)

Nolakotasun hauek esker lotuta daude elikadura sistemekin eta mugimendu sistemekin (liseri aparatua, zirkulazio aparatua, arnas aparatua, hezurtza, giltzadura eta giharrea). Boleiak, joko ezaugarriengatik, gizakiaren garapen psikomotorren oinarritzko lau aspektu lantzen ditu: 1) Indarra, izugarritzko indarra erabiltzen da kirol honetan,

erresistentzia txikiekin egiten da lan. 2) Zalutasuna, espazioan gorputza mugitzeko trebetasuna. 3) Abiadura, ahalik den bora laburrean ekintza bat burutzeko dugun ahalmena. 4) Malgutasuna, zentzu zabalean, giltzadura edo artikulazio baten erraztasunez sor ditzakeen mugimenduak izango litzateke, ohizko mugimenduetan egiten duten amplitudea gaituz.

Artikulu honen azken zatia tekniko samarra suertu dakieke hitz edo termino hauek ezagutzen ez dituztenei; baina beharrezkotzat jo izan dut aspektu hauek jasotzea.

Izan ere, ikasle, guraso eta entrentzaileok, gazteak askotan animatzen ditugu kirola praktika dezaten -zer esanik ez onuragarria da hau- kirolarenak besterik ez diren erizpideak kontuan hartzeko.

Bizitzan behar den bezala igarotzen jakitea bada hezitzaile guztien helburua, intelektualki zein fisikoki; hori dela eta denon ardurak da lortzea gure ikasleek horretarako dagozkien kirolak aukera ditzaten.

Horiatariko bat, boleia dugu. Dударik gabe.

(*) *Gimnasia irakastea*


**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64



**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Gutxitu psikikoek giltzak egin eta enpaketazioetan pasatzen dituzte ordu gehienak

35 langile Gureak tailerlean

Subkontratazioan bailarako enpresen lanak egiten dituzte

Dagoeneko, *Gureak*-en tailerrak zabaldu zirenetik urtebete pasatu da. Inaugurapen ekitaldian aipatutako helburuak, 75 lanpostu berri sortzekoak hain zuzen, oraindik bete ez badira ere, esan daiteke hasitako proiektua martxan dagoela.

Gaur egun, *Gureak* tailerlean 35 gutxitu psikikok egiten dute lana. Altuna enpresarentzat giltzak egin, Bilore xaboi enpresarentzat enpaketazioak, Ceventor edo Bergarako Mayc enpresen enkarguak... eta beste enpresa batzuk, subkontratazio mailan, bidaltzen duten lana egiten pasatzen dira eguneroko zortzi t'erdiko lan orduak. Aipatutako orduetan lana egiteaz gain, bazkariak ere bertako jangelan egiten dituzte.

Gureak-en gutxitu psikikoak lana egiten moduan, alboan, *Gupost*-en gutxitu fisikoek egiten dute lana. Enpresa honetan, Lan Kide Aurrezkiarentzat

publizitate eta paperak egiten dira.

Enpresa bien arduradunak zioenez, *Gureak* gaur egun ez omen da errentagarria, bai ordea *Gupost*. Dena dela, Jose Luis Zalduaren hitzetan, "lan arloan errentabilitatea lortzea baino, gure helburua gizartearentzako errentabilitatea lortzea da". Izaera hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak betetzen ditu *Gureak*-en behar ekonomikoak.

Arrasateko bi tailerretan, guztira bailarako 49 lagunek lana egiten duten moduan Gipuzkoa osoan, antzerako tokietan mila lagun ari dira. Arrasateko bi tailerren arduradunaren ustez, Bergarako tailerra txiki gelditu eta gero, Arrasatekoak ondo erantzuten omen die bailarako beharrei. Tailer hauek zabalteko, 115 milioi pezetako aurrekontua erabili zen orain urtebete. Hasierako helburuak betetzeko hamar urteko epea aipatzen zen.

Usteak uste

Zergatik ez zuten sozialistek Arrasateko alkatetza lortu? Bi zinegotzi jeltzalek bete ez zutelako PSOE eta EAJren arteko hitzarmena. Baina, zergatik egin zuten hori? Hor dago kokxa eta horretaz hasi beharko lirateke hausnartzen sozialistak.

Orain urtebete euskararen kontrako kanpainari ekin ziotenean, ondoren izan ziren hauteskundeetako emaitzak ikusita, esan zitekeen etekin onak eman zizkiela, botutan (kanpotarren botuak) gora egin zuten eta.

Konturatu barik, ordea, herriko beste sektoreak urrundu egin zituzten eta agintea hartuko zutela ematen zuenean, iaz harrotutako liskarra euren kontra (bi zinegotzi euren partiduaren disziplina apurtzeraino) bihurtu zitzairen.

Zoritxarrez, porrotetik ikasi ez. Nekane Iglesiasen adierazpenak DVn, lehengo bidetik doaz. Alkatetza lortzen duenean elebitasuna jarriko omen du berriro. Hori asmo txalogarria izan daiteke. Argitu egin beharko luke, hala ere, ea herritar bat euskaraz galdetzeraz doakionean gaztelaniaz erantzutea den elebitasuna. Horrekin batera, ea bere helburua lortzeko euskaraz ikasteko asmorik duen. Ez litzateke seinale txarra. Matrikulaldia zabalik dago.

JOXE ARANZABAL

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE

San Juanak argazkitan



San Juanetako lehen gauean **Mikel Laboaren** kantaldia burutu zen Amaia antzokian. Jende ugari hurbildu zen euskal-kantagintzako beteranoaren kontzertua entzutera eta baita gustora atera ere. Izan ere, Laboak kantu zahar eta berriak nahastu zituen jendearen gozamenerako. Kantaldia amaitu eta gero, jendearen "beste bat"ak medio, bi aldiz gehiago atera zen Amaiaoko agertokira.



Tradizioz zimegotzi gazteenari tokatzen zaio Mondragoeko bandera eramatea Salberako udaletxetik parrokiara egiten den prozesioan. Aurtengoan **Isabel Gallastegi**, 24, izan da banderaduna, **Aitor Orobengoa** iazkoa baino sei urte gazteagoa da eta. **Juan J. Uriarte Bermi** eta **Bixente Etxeberriak**, besteak beste, eraman zuten San Juanen irudia.

Ibai Guridi oñatiarrak 13 urte bete eta biharamonean Arrasateko txirrindulari-lasterketa irabazi zuen, lehen urteko haur kategorian. Iaz Euskadiko txapelduna izan zen alebinetan. Ibairen aita, **Juan Migel Guridi** musakolarra da eta txirrinduzale handia. Argazkian aita semeak Sebero Altube plazan.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84

URONDO
elektrizitatea




- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE


VE ECUADOR

Kontzeziño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Lore Gazteak dantza-taldekoek Aurreku eta San Juan Dantzarekin agurtu zuten San Juan sua. **Agurtzane Lizarralde**k ederto erakutsi zuen Aurrekua nola dantzatu behar den.



Koadrilak patxadaz ibili ziren arratsaldean zehar. Musakolatik irteten eta bost bat atsedenaldi egin zituzten bidean. Kalimotxoari bapo eman eta gero, heldu berriro enborrari, purua ezpain artean estutu eta goooora. Makalaren tonelada t'erdia samur altxatu zuten. Hori duk sasoa, hori!



Kondekuako parkeko gerizpe zoragarriak aprobetxatuz, jende mordoska bildu zen 23an Elgoibarko banda eta Iruñeko gaiteroak entzutera. Kontzertu hau San Juanetako klasikoa bihurtu zaigu dagoeneko.




ARRASATEko UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasleentzat bekak ematen ditu. Eskaerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin 79 09 00 tfnora., edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlotara. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Telefonoa:

**AXUN
OIANGUREN**

Afaria:

IDOIA HERRARTE


Erlojua:

Ma ASUN GARAI


Argazki makina:

JUDITH

MURUAMENDIARAZ



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.



Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Non egon da
ATBren platoa
San Juanetan?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidai
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KAT IDE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE




MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2
ARRASATE



Beti esan da umeez ondo pasatzeko ez dutela ezer askorik behar. Argazkiak ondo erakusten du jostailu elektronikoak nagusi diren garaian, sokaz eragiten den panpin txikia nahikoa dela umetxoia ametsen mundura eramateko.



Eskola Politeknikoko kanping sailak antolatu du dagoeneko abuzturako bidaia. Alemania eta Txekoslovakiarantz abiatuko dira autobusez, izena eman duten 45 lagunek. S. Ignazio egunean irten eta abuztuaren 23an etxera berriro. Poitiers (Futuroscope), Kolonia, Berlin, Leipzig, Dresden, Praga, Pilsen, Nuremberg eta Mulous bisitatuko dituzte. Argazkian **Esteban Illarramendi**, antolatzailea.



San Juanak hasi aurretik, hirurogei bat **jubilatu gasteiztar** izan genituen bisitari Arrasaten. Goizean Udaletxea ikusi zuten eta ondoren Monterrongo Kultur Etxea eta parkea. Gasteiztarren artean Arrasaten jaiotakoak ere baziren, eta San Juanetara etortzeko asmoa zutela adierazi zuten. Batzokian bazkaldu eta arratsaldean Loiola ikustera joan ziren.



ARRASATEko UDALA

UEUra JOATEKO BEKAK

Uztailaren 15etik 27ra bitartean Iruñean Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen duten arrasatearrentzat bekkak ematen ditu Arrasateko Udalak. Eskerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin 79 09 00 tnora. edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

PROPIOAK



Xabier Zubizarreta berriro Alkate atera zen egun bereko arratsaldean, **Jose Luis Lana** zinegotzi ohia, **Miguel Vivar** eta **Angel Rico** zinegotzi berriak Euskadi eta Mondrako beteranoen arteko partidua ikustera joan ziren Atxabalpera. Nekane Iglesias Alkatesa ez ateratzea, ezusteko handia izan zen sozialestentzat. Hala ere, Vivar eta Ricok goizean jantzitako gorbatak soinean zeramatzen. Argazkian besterik pentsa badaiteke ere, atzeko bi ertzainak ez ziren sozialisten zaindaria.

● **Joseba Etxebarria**, 44, Durangon bizi den lemoarrak *cum laude* kalifikazioa jaso zuen Eskola Politeknikoan aurkeztutako proiektu bereziagatik. Proiektuaren izena «Unitate didaktikoak euskaraz». Joseba Eskolako Bulego Teknikoan dabil eta Marrazkigintza Teknikoa irakasten die Injinerutzako ikasleei.

● **Asier Guenetxea**, 21, txirindulari aretxabaletarra Artiach eta Seur taldeek fitxatu nahi dute datorren denboraldirako. Aurten hamaika karrera irabazi ditu afizionatu mailan esprinter aretxabaletarrak. Eskola Politeknikoan ari da ikasten.

● **Felix Lopez**, 36, espetxeratu musakolarra libre itzuli da etxera, Espainiako presondegietan sei urte t' erdi egin eta gero. Edurne Iturbe bere emaztearekin batera Madrilén harrapatu zuten. Irakasletza ikasketak espetxean amaitu zituen. Psikologia UNEDen bidez ari zen ikasten. Birritan operatu zuten belarritik.

◀ Baskotour bidai-agentzian egin zen azkeneko *Zotz-Motz lehiaketaren* sarien banaketa. Azken aldean oso maiz gertatzen ari den moduan, saria jasotzera bi irabazle besterik ez ziren agertu, eta beste biek ordezkioak bidali zituzten. Argazkian, **Aran-tza Beitiaren** senarra eta **Angel Etxeberriaren** ama *Baskotour*eko neskekin.



LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

Jainkoari otoi eginez, eta beharrari eginez

Beren kongregazioaren izena Arrasateko auzo bati eman zioten. Badira hamahiru urte Kontzeziñoko monjak Udalarako bideko komentura joan zirela. 22 dira eta pozik bizi dira 16.000 m² hesituen barruan, erabat Jainkoari emanak.

Etxea argia da oso, barrutik. Monjak lanean ari dira. Batzuk agurtu egiten gaituzte. Musika-gelan harpa eta pianoa, isilik. Lorategia eta ortua nahasi egiten dira. Porruak, lekak eta azelgak. Aldamenean larrosa eta krabelin ederrak. Gorago, kanposantu txikia eta Amabirjinari eskainitako koba. Aurrez-aurre ikuspegi zoragarria: goitik Murugain, Kurtzebarri eta harantzago Oñatiko mendiak. Beherago, Olandixo, S. Andres eta Kurtze Txiki dinamitaren haginkada eta guzti. Gaez, argien etengabeko joan-etorria.

Jainkoari emanak

Hemen dauden hogeitabi emakumeak Jainkoaren deiari erantzunez etorri ziren hona. "Gure bihotzak Jainkoari emanak daude.- dio sor Mirarik -, Jainkoarekin

bakarrik bizitzeko aukeratu genuen bizi kontenplakorra. Ez pentsa, hala ere, ezkongabeko baketsu izateko bokazioa dugunik, ez. Jainkoarekin dugun harreman estuaren bidez, kanpoko anai-arrebenganako kezka eta maitasuna bizitu egiten

dira guregan. Zuek uste duzuen baina hurbilago bizi gara zuengandik".

Era honetako bizitza terapia gozoa dela diote, "guk bilatzen ez dugun terapia. Jainkoaren bidez datorkigu. Izan ere, hemen bakea, bizitza eta bizipoza ematen diz-

kizun bakarra Jainkoa baita".

Bizimodua

Aitortzen dutenez, euren bizimodua ez da zaila, ideal bera duten hogeitabi ahizpa direlako. Isiltasunari garrantzi handia ematen diote: "Ez dakizue zein onaden. Isiltasunak bakea ematen dizu". Horregatik, lana egin bitartean, ordu luzeak ematen dituzte isilean, pentsatzeko eta hausnartzeko aprobetxatuz. Isiltasuna goizeko eta arratsaldeko atsedendietan apurtzen omen da. "Orduan denetatik egiten dugu berba: jasotako eskutitzei buruz, liburu santuetako zenbait pasartez, denetatik".

Abestu ere abesten dute, mezatan batipat. Kantu horien artean, bat baino gehiago Cesareo Gabarainenak. Meza egunero entzuten dute, goizeko 7.30etan. Pedro Salaberri abadeak ematen die, puntual asko.

Bateren bat hiltzen denean, bertako kanposantuan hilobiratzen dute. "Denetatik" daukagu hemen, kanposantu eta guzti. Horregatik,



Hogeitabi dira klausuran bizi diren monjak.

besteakbeste, ez gara irteten herrira. Behar-beharrezkoa denean baino ez, haginlariarengana joateko adibidez”.

Jostungintza

Dituzten gastu apurrak jostungintzan egiten duten lanekin estaltzen dituzte. “Bergarako Ezpeleta etxeok jeneroa ekartzen digute eta lan horiek eginez behar dugun dirua ateratzen dugu geure gastuak ordaintzeko. Ez dugu gastu handirik, ez. Gure jantziek hogeit bat urte irauten dute. Hortik atera kontuak”.

Bisitak

Badaukate pertsona bat edo birentzako lekua, baina “hau ez da hotela. Hona datorrena moldatu egin behar izaten da gure janarietara”. Itxarongelan ematen diete jaten.

Geroz eta gehiago da monjak bisitatzeraz datorren jendea: “Gazteak batez ere, munduko plazer iragankorretan itxaropenik ikusten ez duten gazteak. Etsita datoz, eta harritu egiten dira gure artean aurkitzen duten ba-keaz”.

Badaukate irratia eta te-lebista, baita egunkariak jaso ere, baina apenas egiten die- te kasorik: “Zerbait berezi gertatzen denean baino ez diegu erreparatzen. Ha- lakoetan Kristok modu be- rezian bizieratzen dizkigu gertakizun horiek”.



Kontzeziñoko txokorik maiteenetakoa Amabirjinari eskaini diote.

“Zatoz nirekin”

Beren bokazioaren berri ematea eskatu diegunean, Edurnek, Jazintak eta Maria Luisak argi hitz egin dute.

“Gaztetan oso dibertsiozale nintzen” diosku sor Edurnek, “egun batean zinera joan nintzen Beasainen bikote batekin. Han nengoela, bapatean ‘zer egiten duzu zuk hemen’ esan nion neure buruari. Amabirjina zen, neu zerbait handi izateko nintzela esaten zidan. Jaiki egin nintzen eta alde egin nuen handik, oinez, etxeraino. ‘Ama, uste det monja joango naizela’, esan nion eta hura pozik. Horrela etorri nintzen hona”.

Jazinta oso neska ederra omen zen. “Inork ez ninduen behartu. Beste bide batzue- tatik hasi nintzen, baina ez ninduten betetzen. Hemeretzi urte nituela, Kristo nire bila irten zen. Arantzazuko Amak ere ikaragarri lagundu zidan. Hogeitabi urterekin konbentuan sartu nintzen”.


“Ni hamazortzi urterekin mutil batekin nenbilen”, dio sor Maria Luisak, “igande eta ostegunetan elkartzen ginen. Oso maite nuen, baina gauean etxeratzerakoan, hark ez zidala bihotza betetzen konturatzen nintzen. Horretan, Kristo irten zitzaidan. Monja izatea erabaki nuenean, ez nuen laguntzarik izan etxeokoen aldetik, alderantziz baizik. Ezin zuten onartu ni lau horma artean sartzea. Hogeit urte bete nituenean, joan egin nintzen. 28 urte pasatu eta gero, ama bisitatzeraz joan nintzen”.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE


7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

• 20.500 ARRASATE



Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)




ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



AINHOA MORAL



JON RAMILA

Idea eta gidoia:
GERARDO MARKULETA

Aktoreak:


Marta AINHOA MORAL
Gorka JON RAMILA
Aita J. M. URANZU
Ama (Mertxe) M^a KARMEN

Zuzendaritza eta
argazkigintza:
J. OZAETA
eta
GURUTZE EGILUZ


Gure eskerrik beroenak: AED Taldeari, Karlos (Mahoma)
Maxi Eroski autobuseko txoferrari, Irati eta Ederra
tabernakoei, Kataide jatetxekoei, Azkoaga farmaziakoei
eta extra lanetan ari izan zaretenoi ere.

© Institutuko ikasleen argazki-tailerra

Bihotzeko ganbarak

AITA-SEMEA TABERNAN DAUDE AMA-ALABAK JOKOAN.. 





Joateko
asmorik bai?

Ez gaituk joango, ba?



GORKA TABERNAN DAGOELA, AITA SARTZEN DA.



Hauxe dok nere semea!
Bajaukak aittaren an-
tzik, ala zer?

Gura bai! Horrek orain-
dio euren lekuan jaukak
ule danak, hi!



HURRENGO LARUNBATEAN...



Libre al dago esurleku hau?

Bai, neska! Jarri, jarri lasai.


BILBON...



HURRENGO
ASTEKO
OSTIRA-
LEAN...



Goizeko lau-
rak eta semea
ez da ageri...



Jo, ama zergatik geratu zara itxoiten?



Zergatik geratu naizen? Hori dok narru sendoa, hori! Marta bat ibili dok arratsalde osoan hire galdezka...

Badakit etxatena gustetan, baina azkenean galdetu egin jotsat zein zan, Marta..., ez dok ba izango nik pentsetan dotena, ez?



JARRAITUKO
DU.



ARRASATEko UDALA



EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK

Arrasateko Udalak, zazpi (7) IRAKASLE hartu nahi ditu Udal Euskaltegirako.

- Baldintzak:**
- Unibertsitateko erdi mailako titulua.
 - EGA.
- Izen ematea:**
- Udaletxean.
 - Uztailaren 15era arte.
- Oinarriak**
- GAOⁿ argitaratuko dira ekainaren 24ean.



ARRASATEko UDALA



HONAKO LANPOSTU HAUEK BETE NAHI DIRA:


- Jakinerazlea
 - Administrari Laguntzaileak (2)
 - Udaltzain Kaboa
 - Gazteriako Teknikaria
 - Ingurugiro Eskolako Zuzendaria
 - Obra eta Hirigintzako Teknikaria
 - Arkitektoa
- Izen ematea:**
- Udaletxean.
 - Uztailaren 22ra arte
- Oinarriak**
- GAOaren uztailaren 2ko alean

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkitu duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ



ZENBAKI


**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARETXABAETA

Xabier Erdozia

Lan mundua euskaldundu nahian



Xabier Erdozia, Donostian jaiotako lekeitiarrak hogeitabost urte daramatza dagoeneko Arrasaten. Lehen mailako futbolaria izateaz gain, ekonomi ikasketak egin zituen Bilbon eta Bartzelonan. Gaur egun 55 urte ditu, eta kooperatibetako Kontseilu Orokorrean ari da lanean. Duela bi hilabete inguru Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kide izendatu zuten eta gaurko elkarrizketan horren berri jaso nahi izan dugu.

— Zer dela eta aukeratu zaituzte Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholkulari Batzordeko?

— Beno, egia esan, zaila da galdera horri erantzuten. Hala ere, nik uste euskararekiko beti erakutsi izan dudana ardurak eragina izan duela hautaketa horretan.

— Zenbat lagunek osatzen duzue Euskararen Aholku Batzorde hori?

— Guztira hogeitaz lagun inguru izango gara. Bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Hizkuntz Politikako Idazkari Nagusia eta Euskaltzaindiaren proposamenez izendatutako batzordekide bat daude.

— Noiz sortu zen delako Batzorde hori?

— Ba, gaizki ez banabil, 1982an sortutakoa da.

— Zein da gutxi gorabehera Batzordearen helburua?

Batzordearen helburua, politikazko harat-honatan gainetik, gure hizkuntza sendotzea da. Beraz, organo hori hizkuntza normaltzeko ahaleginetan ari diren erakunde desberdinen elkarlagune izango da.

— Zer da orain eskuartean darabilzuen?

— Beno, gure helburu nagusia, une honetan behintzat, Administrazioa (batez ere Udalak) eta enpresa mundua euskalduntzea da. Zeregin horrek buruhaute ugari eta denbora luzea eskatuko du zalantzarik gabe.

— Buruhausteak aipatu dituzenez, zer nolako oztopoak ikusten dituzu lan mundua euskalduntzeko?

— Oztoporik handiena, hala esan badaiteke behintzat, gure gizartean orokorki euskararekiko ageri den konpromezu falta da. Konpromezu falta hori orokorra da,

hau da, jende nahiz enpresa mailakoa. Azken finean, euskararen aldeko konpromezua hartzea oso nekeza da, eta jendeak aldatz gora baino nahiago izaten du lautada.

Bestalde, ez da ahaztu behar gazteleraz ikasi dugunok ez dugula erraztasun handirik euskaraz lan egiteko, alfabetatu gabe egoteagatik, ohitura faltagatik etab.

Horrez gain, euskarak berak ere eragozpen eta traba ugari sorterazten ditu, batez ere terminologiari dagokionez. Lan eremu berezituatarako terminologia

finkatu eta bateratua izatea ezinbestekoa da, eta hori lortzen ez dugun bitartean jai daukagu.

— Euskararen bilakaerari buruzko balorazioaren bat egitekotan zer azpimarratuko zenuke?

— Beno, egia esan, gauza batzuetan aurrera egin dugu, baina ez horrenbeste, euskararen normalizazioa lortuko bada zeregin ugari dago eta.

Alde batetik, pozgarria da, eta baikor nagoela aitortu behar dut, euskara gero eta esparru gehiago eskuratzen ari delako, batez ere irakas-kuntza munduari dagokionez. Hori dela eta, gaur egun hainbat ikasketak euskaraz egiteko aukera dago, lehen ez zegoena. Hala ere, euskararen kalitateak benetan kezkatzen nauela aitortu beharrean nago, izan ere, eskola-umeen artean gero eta euskara traketsagoa erabiltzen dela ikusten bait da, eta hori oso grabea da.

— Bukatzeko, zer deritzozu "Euskalan" taldea kooperatiba munduan euskara sustatzeko egiten ari den lanari?

— Nire ustez, eskertzekoa da «Euskalan» taldea egiten ari den lana. Azken finean, guk ezin dugu ezer asko lortu jendearen laguntzarik gabe. Ahalegina, beraz, goitik behera zein behetik gorakoa izatea komeni da, eta hala ere nahikoa lan izango dugu euskararen normalizaziora iritsiko bagara. Belaunaldi bat itxoin beharko da erantzunen bat jaso ahal izateko. Beraz, itogabe baina etengabe lan egin beharra dago. Ea bada, langile, politikari, enpresari, hizkuntzalari eta oro har euskaltzale garenok bat egirik, euskararen auzi honi buelta emateko gai garen.

— “

Oztoporik handiena, gure gizartean ageri den konpromezu falta da”

Atxabaltarrak Makalu mendira igotzekotan

8.481 metroko mendira iristeko, ia 5 milioiko aurrekontua

Aurtengo udan, atxabaltarrak mendizale talde batek Himalayako Makalu mendia igotzeko ahaleginak egingo ditu, 8.481 metro dituen mendia hain zuzen. Felix eta Alberto Iñurrategi, Jesus Arregi, Iñaki Garijo eta Joseba Egibarrek osatzen dute uztaillaren 24ean Aretxabaletik Makalurako bidea hartuko duen taldea.

Makalu edo beste modu batean "Beltz Handia" izenez ezagutzen dena, munduko boskarren mendirik garaiena da. Mendizaleek diotenez, mendi honen zailtasunik handienetarikoa, gerturatze martxa da, oso luzea baita eta gainera jenderik bizi ez den tokietatik pasatu behar delako. Normalean mendi barrenera iristeko hamabostetik hamazortzi



Makalu edo "Beltz Handia"ren 8.481 metroak


egunetara behar izaten dira 1955. urtean Frantziako mendizale talde batek igozuen lehen aldiz Makalu mendia.

Atxabaltarrak uztaillaren 24ean aterako dira Nepalerantz, abuztuan gerturatze martxa eta igotzeko. Bada ez bada, atxabaltarrak

oxigenoa eramango dute, baina euren asmoa Makaluko igotzeko oxigeno barik egitekoa da.

Makalurako abenturaren aurrekontua 4.945.000 pezetakoa da. Diru kopuru horren gehiengoa, Kathmandurako bidaiak, eskalada eta gainontzeko materialak, Nepaleko gobernuaren baimekin eta porteatzaileen soldatek eramango dute.

Jakina denez, iaz Iñurrategi anaiek Pumori mendia igotzea lortu zuten eta izugarrizko arrakasta lortu. Aurtenera, esperientzia hura kontuan hartuta, atxabaltarren asmoa mendia garaitzea da, "hainbat jenderentzat poza eta beste zenbaitentzat mendian beti ere zerbait gorago abiatzeko animoa izan daitekeelakoan".



Kirol saltsa handia San Juanetan

San Juanetan kirol saio ugari ikusteko aukera izan dute arrasatearrek, hasi larunbatetik eta asteazkenera arte. Txirrindua, futbitoia, gimnasia erritmikoa, pilota... eta baita judoa ere. Euskadiko lau taldek hartu zuten parte Musakolako Kiroldegian antolatutako Judo jaialdian. Kiroldegian maila eta pisu guztietako borrokaldiak ikusi ahal izan ziren. Argazkian, Gaizka Aranegi arrasatearra eta era berean Euskadiko txapelduna, aurrean jarri ziotena menderatzen.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua


AITOR LZ REKARTE

Nolako aita halako seme

Aitor Lopez Rekartek hamabost urte dauzka eta txikitandik izan du futboleko jokatzeko zaletasuna. Ez da arraroa. Kontuan hartuta jaio zenetik etxean futbol-giroa gertu-gertutik bizi izan duela ezin zitekeen besterik izan. "Bederatzi urte nituenean hasi nintzen jokatzeko, kiroldegian. Ikastolan taldea osatzeko deialdia egin zuten eta nik izena eman nuen. Han jokatu nuen eta gero Mondrara joan nintzen. Mondrako alebiretan bi urte ibili nintzen eta ondoren Errealera joan nintzen".

Lopez Rekartetarren gazteena Errealera eraman zutenetik bi urte pasatu dira. Aitorrek, donostiarren taldeko kadete mailan jokatu du. Gauzak berak pentsatzen duen bezain ondo joaten bazaizkio, Gipuzkoako lehen taldera iristeko, gazteen taldeetik eta Errealeko bigarren ekipotik pasatu beharko da. "Zorrie piska bat izanez gero...". Futbola gaur egun nola dagoen ikusita, Aitorrek duda barik zortearren beharra izango du. "Beno, nik zelai erdian jokatu eta hor konpetentzia handia dago. Dena dela, konfidantza badaukat, azkarra naiz eta teknika aldetik ere ez nabil gaizki".

PODIUMA



Norberak barruan daramanaz gain, ikasi ere egin behar dela dio Aitorrek. "Baita telebista ikusten ere". Tebistan ikasten duenaz aparte eta izan dituen entrenatzaileak erakutsi diotenaz gain, Aitorrek etxean irakasle partikularra dauka: Luis Lopez "Bomba". "Aitagandik asko ikasi dut. Mondran entrenatzen zuenean berarekin joaten nintzen. Orain ere, aitarekin entrenatzen dut. Donostian partiduak ditugunean berak eramatean nau. Han entrenatzea niretzat askoz hobea izango litzateke, baina oraingoz nire bizitza hemen egiten dut".


Aita ezezik anaiak ere futbolistak ditu Aitorrek. Luis Marik egin duen bidea egitea gustatuko litzaiolke Lopez Rekartetarren gazteenari. Anaiari buruz galdetzean, berari ez diola gehiegiz kontaktatu dio Aitorrek. "Ez dit esaten orain nora joango den, bestela badaki kontatuko dudala eta".

Hilaren 14ean txirrindulari profesionalak Arrasaten

Datorren uztailaren 14ean, txirrindulari profesionalak Arrasate eta Gatzaga arteko erlojuaren aurkako lasterketa izango dute. Lasterketa hau Arrasate eta Aretxabaletako txirrindulari elkarteek antolatu dute. Lasterketaren ibilbidea, Maxi-Eroski aurrean hasi eta Venta-Frian bukatuko da, Gatzaga gainean, guztira hamazazpi kilometro.

Aipatutako egunean, estatuko hamar taldeetako txirrindulariak izango dira hemen, talde bakoitzetik hiru txirrindulari. Besteak beste, Julian Gorospe, Piotre Ugrumov, Enrike Alonso, Xabier Lazpiur, Juan Tomas Martinez, Jon Unzaga, Joaquin Llach, Pedro Diaz Zabala, Vicente Ridaura, Xabier Aldaondo, Joxean Davoz, eta Juan Carlos Gonzalez Salvador hemen izango dira.

Lasterketa hau aurrera ateratzeko, antolatzaileek hiru milioi pezetako aurrekontua erabiliko dute. Erlojuaren aurkako proba goizeko 11.30etan emango zaio hasiera, 14.00ak inguruan bukatzeko. Beraz, aukera ederra txirrinduzale guztientzat profesionalen ahaleginak ikusteko.



Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Lokalean

Lokalean zegoen berriro ere. Eskuan zeraman poltsa lurrean utzi eta begirada lasaia bota zuen bueltan. Mahai gainean, ordenagailua eta soinu-mahaia, haruntzago kitarrak, eskuinerago bateria, anpliak, tresneriarentzako maleta handiak, mikroak, kableak... Han zeuden bere mundua osatzen zuten tramankuluak, bakoitza bere tokian, eta gustora sentitu zen.

Izerdi asko kostatakoa zen lokal hura. Lehen, utzitako batean ari izaten ziren, beste zenbait talderekin txandaka, baina han ez zegoen modurik

eta azkenean moskeatu egin ziren. Lokal propioa behar zuela erabaki zuen eta mila buelta eman zituen hura aurkitu arte. Obrak egin behar izan zituzten azpiegitura lojistikoa -komuna- martxan jartzeko, hormak, sabaia eta zorua insonorizatzeko, instalazioak -elektrikoa batez ere- egokitzeko... Baina orain egina zegoen eta harro sentitzen zen, pozik.

Lehenik bezperan egingakoa berrentzun eta erreparatu zuen. Eta nahiko ona iruditu zitzaion. Ona, zuzendu zuen berehala, apalkeriaren tranpan erori nahiezta. Egia esan, lokaleko obra bukatu eta lanean hasi zene-


tik sekulako etorrialdia zuen. Astean kantu bat asmatzen zuen, hitz eta doinu, eta guztiak gustoko zituen, egin nahi zuenaren adierazle onak. Laster elepea osatzeko beste material izango zuen eta, une batez, buruak ihes egin zion, begirada hormaren puntu zehatz bati atxekitzen zitzaion bitartean. Estudioko egunak imajinatu zituen, buruan entzuten zuena masterrera pasatu nahiaren urduritasuna, perfekzioak eskatzen ziona denboraren mugetan sartu beharreko agonia latza. Diskoa ere ikusi zuen, disdiratsu eta erakargarri. Eta taldea kantuan, jende asko-askoren aurrean...

Hasperen isil batez itzuli zen mundura. Amets hura gauzatuko zen, ziur zegoen, baina lanaren ondorioz. Taldekideak nahiko animatuak zeuden azken boladan, baina hurrengo entseian berriro hitzegingo zien. Berak bere burua musikan ikusten zuen, ezin bestelako ogibide iraunkorrik imajinatu ere. Astean egun bat gehiago eman beharko zuten entseiatan, baina kosta ahala kosta, bera aurrera egin beharrean zegoen, taldekideekin edo bakarrik.

Erritmo-programatu, kitarra hartu eta kantuan hasi zen: "Nire maite rokanrolla..."

Mikel Irizar

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL

Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21

Ordezkaritza: Labegaraieta z/g, Tfnoa: 76 53 69

Batuta


Jesus Azkarate

Jesus Azkarate Zarugalde kalean jaiotako arrasatear peto-petoa dugu. Orain arte Zerrajeran lan egin duen arren, gaur egun 61 urte ditu eta jubilatua dago. Joxeri etxetik datordio musikarako zaletasuna. "Aitak bandan jotzen zuen, eta bost anaiotatik guztiok jo izan dugu aitarekin bandan. Hamabost urte nituela hasi nintzen. Sasoi hartan txapa eta tronpeta jotzen nituen".

Gaztaroa, beraz, bandan pasatu ondoren, 1960an banda uztea erabaki zuen, nahiz eta geroago ere langintza horretan jarraitu izan.

Banda desagertu kondoren Arrasate Musikaleko Orkestran sartu zen "bertan perkusioa jo izan dut, tinbala, panderoa, txapak, bonboa, etab."

Jesusek bandan urte ederrak igaro baditu arte, askoz nahiago du Arrasate Musikaleko orkestrarekin izandako esperientzia "Banda eta orkestra oso diferenteak dira, bandan jai giroa da nagusi, seriotasun handirik gabekoa, orkestra, ostera, beste gauza bat da. Nik, egia esan, nahiago dut orkestra. Zaletasunagatik baino gehiago, aita-



ren eraginez sartu nintzen bandan; orain, berriz, musika klasikoaren zaletu amorratua naiz. Musika modernoa, ostera, ez dut oso gogoko"

Orkestrarekin batera hara eta hona bazter ugari ikusteko aukera izan du, besteak beste, Italia, Munich, Paris, Londres, Eskozia, Edinburgo, Madril eta Bordele bisitatu ditu.

Gaur egun, hamalau urtetan zehar Arrasate Musikaleko zuzendari-batzordeko kide izan ondoren, bi urte daramatza jubilatua. Orain ez du inolako instrumentorik jotzen, baina entzutea asko gustatzen zaio. "Bizitza osoa musikari eman ondoren, orain faltan sentitzen dut, baina zer egingo diogu, azken finean gazteei ere lekua utzi beharko diegu, ezta?"

Zaletasunagatik baino gehiago, aitaren eraginez sartu nintzen bandan

Txio txioak

Arrasate Musikal: erdi mailako kontserbategia

Azkenaldi honetan Arrasaten musika-munduan dugun albisterik inportanteenetariko bat Arrasate Musikaletik datorkigu, musika-akademia izatek erdi-mailako kontserbategia izatera pasatu delako, oraindik Pedro Mendietaren azken sinadura falta bada ere. Gaur bertan Arrasate Musikalekoen eta Eusko Jaurlaritzakoaren artean bilera bat egitekotan geratu dira azken onespren hori emateko Albiste hori pozgarria da oso, musika munduan murgilduta gauden guztiarentzat; izan ere, titulazio-aldaketa hori dela eta, aurrerantzean arrasatearrok musika-ikasketak (erdi mailakoa behintzat) etxean bertan amaitu ahal izango ditugulako, Donostiara joan beharrik izan gabe; eta azken finean, nota jartzerako orduan irakaslea bera izango delako ikaslearen urte osoko lana epaituko duena, eta ez Donostiako kontserbategiko edozein katedratiko. Donostiako kontserbatorioarekiko autonomia hori oso inportantea da, irakaskuntza duina lortu nahi izanez gero. Beraz, irakasle zein ikaslearentzat mesedegaria.



MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1. Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Beste herrialde batzuetako hizkuntz egoera: FINLANDIA

Finlandiar hizkuntza edo suomiera interes handikoa da euskaldunontzat. Suomiera, euskara bezala, ez da indoeuropar hizkuntza eta horregatik batasunaren eta gaurkotzearen arazo teknikoak bere erraietatik konpondu behar izan ditu.

Finlandiak, mendebaldeko hegian, Suedia du eta ekialdean berriz, Sobiet Batasuna. Mendeetan zehar bi auzotar garrantzitsu hauen politikaren menpe egon delako, zatibiturik aurkitzen dugu gaur egun suomitar etnia.

Finlandian, suomiera eta suediera, biak dira hizkuntza ofizialak, eta geografikoki hiru zatitan banaturik dago: suedieradun eremua, suomieraduna zona eta elebiduna.

Populazio minoritarioen hizkuntza %10 edo gutxiagok mintzatzen dutenean, lurralde hori elebakartzat hartzen da, eta gutxiengoaren hizkuntza %10etik gorakoa bada, lurralde elebiduntzat jotzen da.

Sailkapen hau ez da behin betikoa, baizik eta hamar urtero egiten den izen ematen baten bitartez berritu eta egungotu egiten dira elebakardun eta elebidun eremuak.

Planteamentu honek, gaurko Finlandian honoko egoera hau ematen du; 438 udal suomitar elebakardunak, 47 udal suediar elebakardunak eta 44 udal elebidunak.

Nahiz eta hizkuntza biak koofizialak izan, eta legez ezin babestuago egon, suediar hizkuntza proportziotan beheraka doa. Bestalde, berriz, men-




deetan zehar nekazarien artean eta mintzatua bakarrik izatera kondentatua egon den suomiera, goruntz doa, eta gaur egun finlandiar populazioaren %94ek

hitz egiten du suomieraz.

1902an lortu zuten elebitasun ofiziala, beraz, Finlandiak independentzia lortu zuenerako (1918), 16 urte zera-matzaten bi hizkuntzek ofizialak izaten. 1924ean, suomierari azken bultzada eman nahian, sortu berria zen Estatu librean, Batasunerako Komisioa eratu zuen.

Komisio honek lan handi eta gogorra burutu behar izan zuen nazio hizkuntza egungotzeko, hala nola, dialektoen batasuna, hiztegiaren bateratzea eta modernotzea, etab. Lan horren fruitu bezala, hor daukagu suomiera batu modernoa, ezin hobeto egungotua, suomitar herri osoaren zerbitzurako.

Atalataikoan



SASIAIN sport



Errepide eta
mendiko bizikletak

**AUKERA
HANDIA**

Deba Garaiko
bizikleta-denda

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA





rerioak gogor bidali du pilota frontisera. Behar bezalako erantzuna eman behar zaio. Segundu txiki batean bada ere, gauzak mekanikoki eta hotzean egin behar dira: hortzak estutu, eskua zabal-zabal jarri eta pilotari neurria hartu. Hain denbora murrizterako eginbehar handia dirudi, baina ez da horrekin bukatzen. Pilota jotzeaz gain, nola eta norantz jo behar den ere hotzean erabaki behar. Behin erabakia hartu eta gero, zaplastekoa ematea besterik ez da gelditzen: begiak itxi eta kolpe batean tentsio guztia kanpora... alperriko ahalegina, azkenean Reyesek 22 eta 21 galdu zuen Txikitorekin eta.

Argazkia: Mikel



AZTERKETA ETA PROGRAMAZIOA

SOFT VITORIA

INFORMATIKA-IRTENBIDEAK

Enpresa-gestioaren inguruko informatika-irtenbideak

Honako hauentzako irtenbideak: Monopostuak (DOS)
 Multipostuak (UNIX)
 Sare lokalak (NOVELL)

IRTENBIDE STANDARRAK ETA
 NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA.

Informazio gehiago nahi izanez gero, dei iezaguzu.

Manuel Iradier 9,
 01006 GASTEIZ

Tfnoa: 945 - 13 08 64
 Faxa: 23 20 21

**ZENTRO
 PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berrezleraz)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
 ARRASATE TFNOA: 79 48 77

Jaisteko biderik motzena

Goizean goizetik, Arrasateko etxetik mendiratzea pentsatu dut. Gaurkoan ez dut gura izan autoa hartzerik. Arrasateko lautadan hankak berotzeko adinako denbora izan orduko, Bedoña aldeko bideari ekin eta auzora heldu naiz. Auzoanegonik, gorantz egin dut, hegoalderantz, eta Bedoña auzoko gaiñekaldean dagoen baserri batetik hartu daitekeen Larriñorako bidea har dut. Bedoñatik Larriñora ez dira hogeit hamar egongo. Behin Larriñon pantano aldera harturik, agudo ikusiko ditugu urok.

Pantano ertzetik Urbaltzeko arroraino joango gara




eta handik goruntza joan, Ugastei aldera. Behin goiko lautadara helduta, hartu eskumatara, modu horretan Kurtzeberrirako bidean gaudete. Bide nekeza eta zati batzuetan gogorra bada ere, segi etsi barik, Kurtzeberriko

haize freskoa izango da eta gure nekearen ordainik goxoa. Behin tontorra hartuta, denbora ona tokatuz gero eta ipar haize apur bat ibilita, aukera izango dugu

ziuraski modan dagoen beste kirol baten praktikatzaileak ikusteko, parapentetzaleak.

Gauza kuriosoa da, nola zabaltzen dituzten euron parapenteak eta puntatik behera hegara nola botatzen diren ikustea. Gauza izugarria da eta egonean, Degurixara joateko behar nuen denbora joan zait "txori" hauei begira harri gainean jarrita. Azken txoriak, ordubiak inguruan jaitsi dira Urkuluruntz eta bazkaltzeko etxeratu ahal izan badira ere, besteoi ikusmina genuenoi garaiz heltzea galerazi digute. Arratsaldeko lehenengoko orduan heldu naiz etxera, gose eta hegara egin ezinaren penaz.

Hankamotz




Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa 26,
Kataide Industrialdea. 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aste gazte

"Agian gazte bati eman dakioken aholkurik onena: izan dadila benetan gazte".

Antonio Machado



matrikula: 6.000 PTA b) Ahotsa eta Adierazpena, uztailak 18-26, Irunen, matrik. 6.000 c) Ahotsa Herri Kantuan, abuztuak 1-4, Hondarribian, matrikula: 3.000 PTA. Izena emateko epea: uztailaren 5era arte.

PTA. Iraupena: 12 hilabete. Epea: uztailak 20 (BOE 91-04-25).

Sariak: 750.000 PTA eta gaztelua. c) Nobela: gutxienez, 125 orri, gai librea. Sariak: 750.000 PTA eta gaztelua. Epea: uztailak 30.

Gazte txartela

• Gazte-txartelaren Kanpaina berria martxan dago. Txartela 15 eta 25 urte bitarteko gazteek lor dezakete. Gazteentzako Informazio Bulegoan bertan egiten ditugu. Argazki bat ekarri eta NANA aurkeztea baino ez da egin behar. Txartelaren iraupena bi urtekoa da eta aurtun doan banatzen da.

Ikastaroak

• "Mugagabe" Udalako Ikastaroak; a) Herri dantzak, uztailak 8-13, Hendaian,

Bekak

• Euskal Sorketa Literario eta Zientifikorako dirulaguntzak, lanak gazte-eraz argitaratzeko. Eskatzaileak: Euskal Herrian jai edota bizi diren idazleak. Modalitateak: olerkia, elaberria, saiakera eta ikerketalanak. Dirulaguntza: kasuaren arabera. Epea: uztailak 15 (EHAA 91-05-10).

• Ikertzaileak prestatzeko bekak. Ondoko karre-ratan 87 urtetik aurrera lizentziatu direnentzat: Ekonomia, Zuzenbidea, Soziologia, Zientzia Politikoak, Estatistika edo Informatika. Dirulaguntza: hileko 135.000

Bideoak

• Gazteek egindako bideoen bultzapena, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Gaia eta irupena libreak. Formatoa: VHS. Bakoitzak nahi beste zinta bidali dezake. Lanak aurkezteko epea: abenduak 16.

Lehiaketak

• Portugaleteko VII. Jendaurreko Pintura-Lehiaketa. Eguna: uztailak 21 (igandea). Gaia: hiriko Alde zaharra. Sariak: 75.000, 40.000 eta akzesitak.

• "Trungo Hiria" Literatur Sariak. Euskaraz nahiz gazteleraz. Modalitateak: a) Ipuina: 6-20 orri, gai librea. Sariak: 500.000 PTA eta gaztelua. b) Poesia: gutxienez, 800 lerro, gai librea.

Jaialdiak

• Gasteizko XV. Jazz-Jaialdia: uztailak 15-19.

Unibertsitate-autobusak

• 91/92 ikasturtean Donostia edo Bilboko Unibertsitateetara egunero autobusez joan-etortzeko interesa dutenek izena eman dezakete Gazteentzako Informazio Bulegoan lehenbailehen.

Informazio gehiago:
Gazte Zerbitzua,
77 00 65

Onduline **TXOMIN HERIZ**

URALITA eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

77 08 15

ETXEBIZITZAK

- **Naturazaleok:** hondartza ondoan dagoen apartamentu-estudioa alokatzen dut. Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- **Baserría alokatu edo erosiko genuke Deba Garaian.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Peñiscolan sei pertsonarentzako bungalow-a alokatzen da uda osoan.** Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.
- **Lokala alokatzen da Uribe auzoan,** 35m² eta erabiltzeko prest. Informazioa: 79 84 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- **Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Dei egin 79 10 60 tfnora.
- **Gela bat bi oherekin olokatzen da.** Dei egin 79 07 73 tfnora.
- **Hiru irakasle etxebizitza alokatu behar dugu.** Tfnoa: 88 28 63.
- **Torrevejan bungalow-a alokatu nahi nuke** abuztuaren bigarren hamabostaldian edo iraillean. Dei egin 79 15 74 edo 79 30 47 tfnora.

- **Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Edozein lan egiteko prest nago,** nahiz eta hispaniar filologian lizentziatua izan. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- **Fisikarako eta kimikarako maixua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- **Fisikarako eta kimikarako maixua behar da** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neska prest lanak egiteko.** Dei egin 79 49 05 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika).** Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Klase partikularrak edo taldetan ematen dira** (Españiar hizkuntza, literatura, latin eta ingelesa) Tfnoa: 79 10 61. Goio.

- **Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke.** Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.
- **Bi hilabete t'erdiko txakurkumeak salgai.** Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.
- **Bi gela bikoitzeko kanping-denda egoera onean salgai** 27.000 PTAn, abanize handiz, pasilo eta guzti. Dei egin 79 40 44 tfnora.
- **Izokitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean.** Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 tfnotara. Rosi.
- **Lau edo bost lagunentzat kanping-denda salgai,** aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- **Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua,** extra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- **Paseoko bizikleta bi salgai ditut** 15.000 PTAtan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.

LANA

- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika** apendiz moduan. Tfnoa: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.

SALEROSKETAK

- **Egoera onean dagoen Visa autoa salgai.** Aparteko gauza asko jarrita: lainoaren kontrako argiak, sabaian leihoa, etab. Tfnoa: 79 28 12.
- **R-14 GTL berebela salgai, ITVA pasatua.** Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- **Seat Ritmo salgai.** Dei egin 79 73 02 tfnora.
- **Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai,** lanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 40.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- **Neskendako paseorako Peugeot biziketa salgai.** la berria dago. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.

DENETARIK

- **Urrezko eskuturrekoa galdu nuen,** harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- **Argazki makina eramateko poltsa bat aurkitu** genuen Udalan. Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Edurne) edo 79 52 80 tfnora. arratsaldez. (Miren).
- **Txakur txiki bat galdu dugu.** Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- **Nortasun Agiria galdu dut.** Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.



ARRASATEN HILDAKOAK



Juan Urzelai Osa,
ekainaren 13an. 65 urte.

David Ibaiez de Opakua,
ekainaren 22an. 88 urte.

Andres Regueiro Fernandez,
ekainaren 24ean. 70 urte.

Marcelino Bengoa Lizarralde,
ekainaren 24ean. 79 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Begoña

Bengoa tabernakoa

- **Tabernan egunez ala gaeuz?**
Gustokoagoa dut lana gaeuz egitea.
- **Mostradorean ala etxean?**
Momentuan momentukoa, batzuetan tabernan etxean baino gustorago, eta alderantziz.
- **San Juanak ala Santamasak?**
Santamasak, egun bat bakarrik izaten da eta.
- **"Tal para cual" ala "Funtzioa"?**
Funtzioa nahiago dut, bestea ez zait gustatzen.
- **Igogailuan, bakarrik ala norbaitekin?** Bakarrik esango nuke.
- **Trikitixa ala tangoa?** Biak gustatzen zaizkit, dantza egitea atsegin dut eta.
- **Bideoa ala zinema?** Ez bata eta ezta bestea ere.
- **"Hertzainak" ala "Pantxoa eta Pello"?** Pantxoa eta Pello.
- **Paul Newman ala Robert Reford?** Ez ditut ezagutzen.
- **Dutxatu ala bainatu?** Bietatik. Denbora izanez gero, bainatu eta bestela dutxatu.
- **Autoz ala autobusez?** Bietan ibiltzeko ohitura daukat.
- **Futbola ala pelikula?** Futbola nahiago dut, Erreal zalea naiz.
- **Bixigua ala legatza?** Bixigua.
- **Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Gizonezkoei emakumezkoei baino errazago zerbitzatzen zaie. Emakumeek, zer edan nahi duten erabakitzeke denbora luzea pasatzen dute
- **Helduak ala gazteak?** Hemen jende heldua ibiltzen da gehienbat.
- **Aberatsa ala guapoa?** Guapoa, behintzat ikusi egiten da, aberastasuna ezin daiteke ikusi.
- **Mañukorta ala Peñagarikano?** Berdin zait.
- **Piriniotara kanping-ean zeuk nahi duzunarekin ala Karibera bakarrik?** Bakarrik joatea gogorra da, baina Karibera.




Igarkizunak

1. Begiak itxerazten dizkigu ahoa zabalerazten, eta bera menperatzeko gaua ere ez da aski izaten.
2. Menperatzen ditu lehoia eta tigrea baita ere egiten duena farranda, menperatzen ditu behartsua eta erregea denak uzten ditu berdin etzanda.
3. Ez naiz ezer eta badut izena, beti nabil zurekin nahiz izan argala edo gizona.
4. Ematen dizkigu fruituak edo gerizpea eta itzala, ekaitza iristen denean... azpian babes gaitzala!
5. Berde jaiotzen hori moztu, gogor estutu eta txuri saldu.
6. Landare honek dirudi oïsoaren atzaparra, harrapatzen duena uzten du urra-urra, badakizu zer den? Basoko.....
7. Bada mina batez ere gordina, badu hatsa baina goxoa egiten saltsa, ez da piperra ezta ere ederra, San Ferminetan erosi Iruñean eta estimatua sukaldean.

Soluzioak: 1. Logura, 2. Logura, 3. Itza-
la, 4. Zuhaitza, 5. Garri, 6. Laharra, 7. Baraxuri, berakatz

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Kontzeziñoko komentua, 1903

Beata Isabelinatarren komunitatea 151n sortu zen. Silvako Santa Beatriz izan zen fundatzailea. Afrikan jaio eta Portugalen bizi ostean, Toledon sortu zuen ordena.

1926an, Isabelinatarrak Kontzeziñokoak bihurtu ziren. Haiek monja kontenplakorrak ziren, klausurakoak alegia, eta hauek ere bai. Jantzi


marroia zuri bihurtu zen. Orden berria besarkatu zuen lehena Sor Beatriz Eriz gesalibarra izan zen.

1959an, Julio Otadui Mondragoeko Alkate zela, haurreskola egin zuten komentuan. 25 umerekin hasi ziren eta denboraz 400 eta piku itzatera ailegatu ziren, S. Andres auzokoak gehienak.

Vatikano kontzilioaren ostean, eskola ala klausurako bizitzaren artean aukeratu egin behar izan zuten. Bigarrena hautatu zuten. 1972an azken ikasturtea izan zen.

Zortzi urte beranduago utzi egin zuten komentua eta Udalarako bidean egindako berrira joan ziren. *“Ortuko lurrak bidea zabaltzeko behar zela eta, presio handiak izan genituen handik alde egiteko”*.

Argazkia Santa Barbaratik atera zen, mende honen hasieran. Eskuinean Cerrajerako lantegia. Ezker aldean, berriz, aurrera samar, Viteri eskolako erlojua ikus daiteke eta haren eskuinean S. Juan auzoko etxeak.



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE



HAURTOKO

**Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE**

SAN VIATOR IKASTOLA

6. maila


JOLASAK

Margotu puntuak:



Zer ageri da? _____



Zenbat perretxiko daude? _____



Beste murraskian ageri diren murraskiak biera-itazazu ondorengo "Hizki" ZOPAN"

E	G	V	O	R	E	N	A	T	Z	U	C	I	A
G	G	I	N	P	E	Z	A	I	T	Z	E	O	Z
U	A	Z	H	A	A	E	I	T	X	Z	U	T	
E	N	Z	X	T	R	M	C	H	I	A	R	S	I
T	H	A	R	R	V	K	A	X	T	V	U	X	A
S	A	S	I	R	R	U	K	A	X	T	A	Z	H
T	R	A	6	V	Z	O	N	A	A	K	A	K	U
U	N	Z	T	A	I	T	K	X	K	A	A	K	Z
N	A	I	A	E	T	Z	T	I	U	E	G	I	T
E	M	E	N	G	S	I	A	T	A	S	L	G	I
S	O	E	E	K	S	I	O	V	A	R	A	K	T

Biera ezazu itenbidea, laberinto honetan:



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Itzalpean

Existenziaren amiltokian

b

e

h

e

r

a erori zara.

Berriro, motel.

Begi horidun katuak

usaindu dizu bihotza.

Ez zaitula maite, kopon!

Egonera luzean ihartuz

egunak, lagunak.

Denbora ezaba ezinaren izerdia,

izatearen zapalketa zeremoniotsua.

Hamaika koloredun kristala

harrikatzea.

Ulertu al dut?

Tira, beharbada

nigar egiteko lotsa,

desio izkutua.

Bizitzaren itzalean,

isilean.

Monotonia,

erlojuaren orratzak

tik tak tik tak...

barreneko taupadak,

ko-kum ko-kum ko-kum.

Ezer gehio.

Begi horidun katuak dio

ihes egin duela

usai tristedun bihotzak.

Itziar Bartolomé



LASA-AGUILERA
aholkularitza

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitordenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

8 ASTELEHENA

- 20.00 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 21.20 **Saltsa-maltsan**. Jaione Olabek beste errezeta interesgarria prestatuko du.
- 21.30 **San Juanak 91**, hirugarren egunaren eguerdiko emanaldiaren errepikaldia.



21.40 **Berriak**. (errepikaldia)

9 ASTEARTEA

- 12.00 Teletestua.
- 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 13.20 **Saltsa-maltsan** (bezperakoa)
- 13.30 **Berriak** (errepikaldia)
- 19.00 **San Juanak 91**, hirugarren egunaren arratsaldeko emanaldiaren errepikaldia.

10 ASTEAZKENA

- 20.00 Teletestua, era guztietako iragarki eta abisuak
- 21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 21.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Autogidariak.




22.10 **Berriak** (errepikaldia)

11 OSTEGUNA

- 12.00 Teletestua (bezperakoa)
- 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 13.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 14.10 **Berriak** (errepikaldia)

12 OSTIRALA

- 20.00 Teletestua
- 21.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 21.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Migel Laspiur, sasoi batean Mondra futbol taldeko zuzendaritzakoa.



21.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

13 LARUNBATA

- 12.00 Teletestua
- 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 13.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 13.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 14.30 **Berriak** (errepikaldia)

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an- aleazio arinaz egina 95CVko indarra eman diezaikeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100



* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garratxo-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehoen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhak. Esarleku deportiboak. Dofuntza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



CREDIT



Arrakasta handia izan zuen Sebero Altubeko jai-platoan egindako galdeketak. Erantzuten zutenen artean Aretxabaletako Sasiain Sport dendak emandako *Diamond Back* mendiko bizikleta ederra zozkatu zen azken egunean. Irabazlea **Asier Otadui** izan zen. Zorionak!


Telebelarri

◆ Herriaren bakearen bila joan nintzen ekainaren 15eko plenora. Enfrentamentuekin hastea ez zela ona ikusi nuen".

Juan Carlos Garitano
zinegotziak S. Juanetako
emanaldian.

◆ Alde guztietatik jaso ditut zorionak, Euskadi osotik eta Mondragoen ere bai".

Juan Carlos Garitano
zinegotziak S. Juanetako
emanaldian.



Lan izugarria egin behar izan zuten ATBko neska-mutiek San Juanetan. Lan eskergari eutsi ahal izateko bigarren edizio-mahai bat jarri zen alboko gela batean. Argazkian **Iñigo Astigarraga** eta **Edorta Arana** aprobak egiten bigarren edizio-mahaian.

Telebegi

Aurtengo San Juane-tan ATBk egin zuen programazio berezian, emaitzak ezezik, lana egiteko modua ere oso interesgarria izan zen. Asier Arangurenen gidaritzapean, hamahiru langilek osatu zuten talde teknikoa.

Lan handia egin beharra zegoen eta ondo egina gainera. Aipatutako guztiek erantzun zuten eta oso gustora ibili zirela esango nuke. Horren meritua Asierrena izan zen. Bazezien zer egin behar zen eta nola. Bazezien zer eta noiz eskatu. Nola ere bai. Animoak emateko ere apartekoa. Laguntzaile guztiei aukera desberdinak eman zizkien, bakoitzaren dohainen arabera. Emanaldi guztien amaieran hausnarketa saioak egin zituzten, bakoitzaren lana baloratuz eta eman beharreko pausu berriak aztertzeke.

Lehenengo aldiz, medioa ondo ezagutzen duen profesional bikain baten zuzendaritza izan dute. Horregatik, aurtengo San Juanak aro berri baten hasiera izan dira ATBn. Dagoen taldearekin eta zuzendaritza berriarekin edozer gauza itxaron daiteke. Muga zerua da.


JOXE ARANZABAL



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zure esana erabakiorra izango da edozein arlotan. Ziurtasunez pentsatu eta hitz egingo duzu. Zure ingurukoak faltako zaien ahalmen honekin harro samar ibiltzeko joera izango duzu. Zintzo jokatu.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Liluragarri egongo zara, Leo, eta nahi duzuna erakartzeko gai izango zara. Zintzo jokatu jendearen sentimenduekin, norbait mintzea suerta liteke eta. Oldarkor egoteko joera izango duzu. Energiak kontrolatu beharrean izango zara.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era


Lanbidea dela medio, urrutirako bidaiaren bat suertatuz gero ezizu esan ezetzik etorkizuna han izango bait duzu, bai lan arloan bai maitasun arloan. Eskuartera datorkizun guztia onartu, ez da damutzekoa izango eta.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Finantza arloan izango duzu benetako zorte ona, Taurus. Aspaldian ez duzu txikitatik ikusi eta oraingoan argi jokatzen baduzu asmatuko duzu bai, nondik atera etekinik. Baliteke familiarengandik urrundu behar izatea lana dela medio.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Profesio arloan aurrerabiderako atea irekiko zaizu egin dituzun ahaleginen ondorioz. Maitasun arloan aitizitik, kontraesanak sortuko zaizkizu; aurrera egin ala ez izango da galdera nagusia. Alde onak eta txarrak neur itzazu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Makal samar ibili bazara ere osasun aldetik, egunak pasa ahala energiak berpiztuz doazkizula konturatuko zara. Inbertsioak egiteko momentu aproposa da oraingoa, aterako diozu bai etekinik. Ezkontzeko une aproposa duzu oraingoa.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ondo finkatuko dituzu baloreak eta hauek adierazteko izugarriko erraztasuna izango duzu. Koherentzia jokatu duzu eta ez zara damutuko egiten duzunarekin. Norbait zurekin maitemindu da eta zu konturatu ere ez.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Lagunartea izango da benetan behar izango duzuna, Libra. Eguneroko bizimoduak haserreak eta pozak ematen ditu. Gera zaitez bigarrenarekin. Laguna ahaztu samar edukiko duzu; honek ere baliteke tirabiraren bat ekartzea.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra


Zorte ona datorkizu Acuaris, bai diru kontutan baita maitasun arloan. Edozein eratako inbertsioak egiteko garai egokia da oraingoa. Eskarmentatuta bazaude ere, ahantz itzazu momentu txarrak. Garai onak datoz zuretzat, eutsi goiari.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Eguzkia sartu da dagoeneko zure esparruan, Cancer. Egoera berri honek, izugarriko bizitasuna emango dizu. Aspaldian perezaz edo, alde batera lagata zeneuzkan zeregin horiei ekiteko une aproposa da oraingoa. Argi eta sendo egongo zara.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Zure biziko azukre koxkorrekin topo egiteko aukera izango duzu datozen egunetan. Pertsona bakartia bazara beraz, lagun berri honek erabat beteko du zure barrua eta ezezaguna izan zaizun sentsazio berri baten jabe izango zara.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Arazorik suertatuz gero, ez etsi ezertan, zuk uste baino lehen hor izango bait dira zure lagunak edozertarako prest. Oroimena ez daukazu bere onean eta berreskuratzeko ariketak egitea komeniko litzaizuke. Halere atsegina izango zara.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

Uztailerako kultur ekintzak

ZINEMA

Monterron Parkean, gaueko 10.30etan. Sarrera 250 PTA. Gazte txartelarekin 200 PTA.

Uztailak 12: **"Crímenes del Corazón"**. Zuzendaria Bruce Beresford.

Uztailak 19: **"Mama está loca"**. Zuzendaria: Rud Van Hemert.

Uztailak 26: **"La Princesa prometida"**. Zuzendaria: Rob Reiner.

ANTZERKIA

Uztailak 20: kalean zehar, 7etatik aurrera

Trapu Zaharra: **"Occident Paradise"**.

Uztailak 20: gaueko 10.30etan, Monterron Parkean

Taun-Taun: **"Bi kate"**.

Sarrera doan



MUSIKA (JAZZ)

Uztailak 13: gaueko 10.30etan, Monterron Parkean

Patri Goialde Trio

Sarrera doan



DANTZA

Uztailak 24: gaueko 10.30etan, Monterron Parkean

Txekoslovakiako Talde Folklorikoa

Sarrera: 500 PTA; gazte txartelarekin 300 PTA



iKER



SUKALDE-ERAKUSKETA:

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE